

BERTRAND RUSSELL

Bertrand Russell, il da. Erdi Aroko pr'ailek beren illobia egiña uzten zituen il aurretik beren aipatasuna agertuaz. Russellek bere illobirako idazkia utzi digu, bere buruaz zuzen ezaugarri ederki agertuaz: «IRUDIPEÑEKO BERE NAIKERI GUZIEGATIK, XIXgn MENDEKO ARISTOKRATA EZI-GAITZEN ANTZEKO IZAERA NAASTU BAT AGERTU ZUEN BERE BITZITAN. BIZI-LEGE BITXIAK ZITUEN; BANAN AUAN ARABEREA JOKATZEN ZUEN... IGRARO ZAN GARAI BATEKO AZKENENGOA ZAN».

Matematiku, gogolari, ensaiu eta nobelagillle, izeari: Nobel Saritua 1950'an. Sozialista liberala eta fabianoa, pakezale, koformagaitz eta libreprintsatzaile izan da. XX'gn mendeko garrantziko gertakizun denetan eman du aurrerua. Artuemanak, herri, gure garaiko gizaseme ospetsuekin izan ditu.

Bretaña Aundiak bakarrik sortzen dituen gizaseme prestu eta jator oetako bat dugu Bertrand Russell. Idazkera argikoa, illea artzen aparta, paradoja bizikoa eta amaiki esatera mardul botia; itz batean, Bernard Shaw edo Chesterton berdintzeko modukoa.

Nolako zan Bertrand Russell? Artu ditugun lau ezaugarri aukeratuak: —ezazamenera iritzi naieko burruka; —bere antiodogmatismoa eta libre pentsatzearen defentsa; —pakearen aldeko egiñal orokorra eta —bere sozialismo liberala eta fabianoa.

● Ezagutzu bideetan abiartzeko laguntza aundia eskeini zioten bere aitona utzitako liburu-sail zoragarriak. Amaiki urtekin jabetu zan Euklidesen geometriaz; ordu ezker, bere gogolaritza guzieren ardatza bezala izango dira matematikak. Or ditu idatzia «Principia mathematica» liburu galanta eta «Matematikazko Filosofiari Sarrea» prescondengian zegoela egiña.

Baia ez pentsa bildurak eragindako etxean gelditu zan poeta ura bezela bizi zant ezkeko leioak itxia. Etzan liburutik arantz ikusten ez dutenakoa. Gizarte eta politika auzi-mauzi guzirik kezkatu bizi zan. Or ditugu eredu bezela, bere ensaiuetatik zenbait: egungo gai guzietara zabaldua. Gizarteko auzietako nobelagintzari ere eldu zion eta bereak ditu «Satan suburbioetan» eta «Infragorri-kuskin».

● Alan Dorwarden sailketa onartu ezkerko filosofoetaz ari derarik («irrikak eta itxiak»), irikien sailleko dugula esan berriak ere ez dugu. Familiaz jaso zuzen espiritu liberal arkit, oitura utsez idartutako dogma guzieren auzko jarriko du. Ona zer dion bere arazoikeri eta konformagaitzatsunean, irrika bizian: «Osasun billa dabilenari, kredo dogmatiko itxi batek duen konfort patzaratsu eta lasaiaren aineko zer eskeini nezaioke nik nere arazoiketara otekin?».

● Kezka oneko eraginidat, ikastola «libre» bat sortzen du bere bigarren emazte Dora Blackekin 1927'an; bai azalez eta bai mamiz erabat berri eta iraultzaile zuzen ikastola bat. Libre pentsatzearen defentsan, idazle perseguituen aldeko agiri eta ehkabide guzirik izenpetzera eramango du. Berdin zitzaion kolore bateko edo besteoko izate. Izenpetu zan azkena Soljenitsinen aldekoa izan zen.

● Pakezaletasunaren aldeko eraginidat, era askotako agerpenak ditu. Amalazko gerraren aurka aisi eta «Vietnamgo guda-ilketen aurkako epai-baia» sortu arte. Atomika arriskuen aurkako Einstein-Russell agiri; Pragako erasoaz aserre-agiria... Russellen gorputz argala an gertezan zan pakearen aldeko ibillaldietan, ixilka edo oiuka.

● Gizarte auzien zuzentzeko izan zuen bere esperantza sozialismoan. 1920'an, Moskuko iraultzaren gorenean, bertara joan zan erago iraultzaren gidariek in artuemanak eukitzera. An egin zituan bost aste eta an bertan ukatu zuzen komunismoa: sozialismo fabiano baten bidean jarri zan, alderdi or baxtertzuz.

Bertrand Russellen idazkietan denetik arkitzen dugu. Gizonak egindako guzirik bezela, bere alderdi onak eta txarrak ditu, bere argialdiak eta bere ilunaldiak. Baiaian bere bitzitan zituan elburu eta jomugen atzetik ibilli zan beti jo ta ke. Ezin auzu dezakegu kristaulet berak esandako itzok: «KRISTAU URRIKALPENIK BADAUZUE, IZANGO DUZUE ZERGATIK BIZI. IZANGO DUZUE EKINTXARAKO BIDE BAT. ZORIONTASUNA ARKITZEN EZ BADAUZUE ERE, EZ DUZUE BEINTZAT BEREN BURUA ELBURURIK ETA ZEREGINIK GABE IKUSTEN DUTENEN ZORIGAITZA EZAGUTUKO. AINBESTERANOKA DAN GIZA MIXERIA GUTXITZE ORTAN, BETI BAIT DEZAKEZUTE ZERBAIT».

Goian bego.

BI MILOI GORPUTZ

oñaz eta ganboa

Mundua ez da halere dardaratu. «Pas de problème: les noirs, ça pousse vite», esan zidan atzo batek. (Alegia: koskarik ez, beltzak azkar ugaltzen bati dira). Bi miloi hil, herri bat nabarmenki zantzuatua, genozidio kupidagabe bat gure begien aurrean obratu; eta, arrapostu: «ça pousse vite»...

Noruegako eta Sueziko Eliza protestanteek egin dute genozidioa.

Azkenean Biafrak potto egin du.

Iritziz lotsagabe horrek ba du, halere, sustrai sukoni; Biafrako arazoa goitik behera izan bait da gure soziedade eta mundu guzieren gaitzakeria funtsezkoaren argibide gorrira.

Sartre, S. de Beauvoir, Pouillon eta L. Schwartzen abotsa entzun dugu berri ere, aldi hontan genozidioaren kontra garratz eta gogor. Hitz negarti eta hotz batzuk entzun dira Vaticanoan, biharamunean bertan ukatuak (eta aste honetan guztiz Nigeriaren aldekoak). Beste amitz lekutatik hitz ustel esko, Wilsonen ahotik esate baterako (harman saldu ondoren, ia-ia negarrez...). Besterik ia deus ez.

U Thantek ahalkerik gabe hitzegin du Monroviara: «O.N.U.-k ez du bigarren Katanga bat nahi. Hura 500 miloi dolar kostatu zitzaizkion gure Erakundeak... Bi miloi pertsona hil? Herri bati askatasun eskubidea ukatu? Hori ez da ezer O.N.U.-ren 500 miloi horien aldean... Noski!»

Eta ikaraz bete gaitu deserritik Ojukuvuk egin duen deihdarrak: «Nere Agiriko hau dei goreneko batez bukatu nahi dut. Berriz ere ekin nahi diot lehenagoko nere karrasiari: nere herria ezerezatetik eta funditetik salbatu beharra dago. Biafrako mugetan Nigeriak burdinazko murruri lodi bat eraiki nahi du, kanpotikako begiratzailagaz uzatzeke. Gauza bera egin nahi du Laguntza-Erakundeekin, albitariekin, eta danekin. Nigeriak ez du, hain zuzen, inolaz ere munduak han ziurki gertatuko dana jakitea nahi... Arren eta arren, beraz, eskatzen diot munduari Nigeria era gutzietara behartu dezan; seguratu egin behar dira nere herriak behar dituen janariak».

Kouchner'en Txostenak jakinarazi duenez, Biafrako eritegitan, gose-erregatik eta bonbaketengatik, mila bat lagun hiltzen ziran egunero aspaldi honetan. Eutsi egin diote halere Biafratarrek Lagosko hamarduri bi urte 1'erdi; eta hau janariarik gabe eta iskluririk gabe (jutsia bakar bat Biafrako bost gudarintzako!)

Eta ikaraz bete gaitu deserritik Ojukuvuk egin duen deihdarrak: «Nere Agiriko hau dei goreneko batez bukatu nahi dut. Berriz ere ekin nahi diot lehenagoko nere karrasiari: nere herria ezerezatetik eta funditetik salbatu beharra dago. Biafrako mugetan Nigeriak burdinazko murruri lodi bat eraiki nahi du, kanpotikako begiratzailagaz uzatzeke. Gauza bera egin nahi du Laguntza-Erakundeekin, albitariekin, eta danekin. Nigeriak ez du, hain zuzen, inolaz ere munduak han ziurki gertatuko dana jakitea nahi... Arren eta arren, beraz, eskatzen diot munduari Nigeria era gutzietara behartu dezan; seguratu egin behar dira nere herriak behar dituen janariak».

Herri triki bat estatu edo erresuma sakratuaren kontra jaiki da, eta haurre da pekatuarik larriena; mendebaldeko eta ekialdeko erresumak bat bait dira horri buruz: «gure menpean ditugun herriak leher ditezela, baina gelditu. U Thantek ez du berritu besterik egin Estatu sakratu guzieren abotsa. Estatu guzirik ados dira mundu guziko herri guzirik errespeturik gabe tratatzeke».

Bi miloi pertsonaren odolak eta neke etsiak ez dute besterik lortu. Gure jertu honetan zer azola zaio inori etnia baten bizia? Ba genetik; ezer ez. Biafrako trajeria ezinastuzko gogorazi egin digu. Matxaderria herri bat eramatea ez da zilegi.

Zortzi miloi Ibo bizi ziran Biafran. Eta, zer da hori? Nigeriak 55 miloi ditu. Txikienari dagokio isiltzea eta «menegitia»!

Horrien nazio-askatasuna, dauden erresuma guzieren kontrako eskubidea da Horregatik, Biafrari ez zaio laguntzarik inundi heldu; gorri ala txuri, erresumak aparato bat bait dira aurrenik; eta, aparato gisa, eskubide guzieren ukatzaile.

Beste onari bat: Biafrako Iboak kristau dira; Nigeriak Hausak berriak mahomatar. Besterik Biafrako diru-eteinakin Nigeria osooko erdia baino gehiago dira (petroleoaren 2/3 Biafran daude). Orain dala 15 urte jarri-arazten du Shellek hango petroleoa Olotbiri deritzan herrian. Eta Wilsonen gobernu «sozialistak», Shellen negoziakoz zaitzekotan, «Saladin» eta «Saracem» tanke modernoak saldu dizkio Nigeriarri...

Bi miloi hil! Ikasko ahal dugu! Zeren-eta munduaren izanaz arranguratzeko bidezkoa izanik ere, mundua dan bezalakoa da; eta dan bezalakoa dala ahaztu gabe jokatu behar da. Eskubidea ez da ezer erresumen aurrean; erresumek ez dute indarra eta interesik itsusiena baizik begiratzen. Honetan, danak dira berdinak. Douglas Bravoren haustek hildo beretik jotzen du.

Moskuko «marxista-leninistak» ez dute bestela jokatu nahi izan. Mundu guziko moskuzaleek, Pravdaren esanari hertsiki jarraituz, «indar progresisten» arrakasta eta garitzaena tzalotu dituzte... Harmatan altzatak herri bat desegitea bertute bat da, itzura denez. «Progresismoaren durrezapean hau lortzeko, jakina denez, Breznerrek eta Wilsonen eskuz-esku jokatu dute; eta Londresko «sozialistek» tanke berriak saldu dituen bezala, Moskuko «sozialistek» kañoiak, Ilyu-zin'ak, eta Mig-15 eta Mig-17-ak saldu dituzte ugari. Marxista-leninistak eta sozial-demokratik elkartriditu egin dira azkenean; ez sozialismoa elkarren errespetuan erakitzeke, bi miloi Ibo hil eta Shellen interesak salbatzeko baizik.

Nagargaria, nazkargaria, jasan-ezina. Bai, Baina egi;

Etsi egin behar, beraz?

Ez, nik uste. Baina pikuetatik jertzi behar, dudarik gabe bai eta bai.

LARRSORO

GOGOZKOA EZ BAZAIGU ERE...

Azkeneko hilla bete hauetan ha-maika esames sortarazi ditu Sindikal Legearen egitamu edo proiektok. Gai hontaz idatzitako horriak kontu ezin aloakoak dituzte. Beren aurka agertu diran iritzietan argi eta garbi erakutsi digute, dala-ko lege hori ez dala inolaz ere egokia. Langillierak gai honi buruz bere eskabideak adierazi ditu. Egiazko sindikatoa behar degu, bere egiteko zintzo bete-araziko duan elkartea, langillieek eta langillierentzat osatua. Bertan kargu duteneri, gaitzotzeko langillieen benetazko ordezkari izan ditzeten eskatzen dute. Askatasuna ere aintzat hartu behar litzake Lege berrian.

zoka aldarrikatzerakoan, proiektok zenbaterainoko jipoiak hartu dituan ohariturik, bagenduan, gobernuua jende aldatzerakoan, alde batera utzi eta beste lan bati ekingo zioten esperantza, halako itzaropen apurra.

Aldizkarietan agertu da azterketa sakonik, langillieek egiazko sindikalismoaren oinharria zer litzakean adierazteko egokierarik ez dute galdu. Lege hori ez zaigu baxtere gogozkoa...

Zergatik, ordea, hasieran agertutako proiektorekin jarrai? Lehengo eta egungo gobernuua osatzen dutenak iritzi berdiñekoak dirala agertarazteko? Aurrekoen «lana» txartzat ez emateagatik?

Ageri denez, gauza bat dago garbi: arazoak bategatik edo besteagatik, ez dutela, inolaz ere, aldatzeko, legea hobetzeko asmorik. Oraingo ez dute ezertxoere egin, eta gero...?

Lehenengo proiektorekin jarraitzen badute, gehienez, orratzu, apaindu, demokrati kutsua emango diote, baiñan guztiok behar dugun legerik ez da argitaratuko.

Hainbeste denboran ixilean gorderik zegoana, erakutsi zituen. Herriak, ahal zan egokienik, bere gogoa adierazi du, eta du ontzat eman. Zer gertatuko ote da?

Nik ez dut ezer espero. Oraingo lehengoak jarraitzen du, gogozkoa ez bazaigu ere.

Mikel Ugaldé

Dakiguzen, egungo Gobernuua osatzen dutenek, aurkeztutako egitamu ez dute baztertu nahi izan, presentatu duten proiektu ontzat ematen dute nunbait. Herriaren iritzia hain desberdina eta legearen aurkako izanik, ez dirudi aurreantzean aldaketak handirik egiteko asmorik izango dutenik, egun hori adierazten digute behintzat.

Gobernuak Sindikal Legearen arta-

ZERUKO ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Naparroko-Kantauriko ta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Carlos III, 22-Pamplona)

DONOSTIA'n:
Oquendo, 22 - Telf. 26666

ARPIDE SARIA:

Barruan	215 pezeta
Korreo batasunetako errietan. 265 "	
Atzerrietako beste errietan	285 "
Aidez Aurrez galdetu.	
Salmantan (Alebakoitza)	5 pezeta

Elgoibarko Marisabeli eta beste gazte arduratu askori argi eta garbi esan bear deutes: Ideologi adetik baliteke in molde batzuen barruan izatea, izkuntza aldetik baiña, ez nago in arau batzueri lotuta. Geroñe jaunak, prejuizioak alde batera itxita H'ak eta euskera bateratu ori onartzeko eskatzen euskun. Nik be ori herori eskatzen deutes aspal-ditko adiskide orri: H orrek erditbitzen gaituala? Ba, Kendu eta kito! Bitartean, orain arte legez, aal dotan guztia egingo dot euskeraren alde. Ezagutzen nozen guztiok, ereti zuzenditakoak izan arren, ori ondo dakizue.

Azken eskari bat; sasi-tetradutaz bota nauanari: Euskeraren ziruñan aisi barri zarienok, Hipokratesen lenengo araua edo goiburua aintzat artu egizue, geixok osatzen jartzan ziranerri esaten eutsena: «Lenengo eta bein, ez kalte aldiagorik egin».

Arenaza'tr Josu.